



Bruce Lee egun hartan perfekzio maila batetara iritxi zen	Mando euli bat pasa zitzaion albotik eta ez zion begiratu ere egin.	Mando euliari perfekzioa berdin zitzaion
		

(m)-2001

argitalpena



'Gaztetxulo'. Gaur egun pil-pilean dauden gai eta erreportaiez gainezka dator martxoako *Gaztetxulo*. Gai nagusi bezala *Telezaborra?* izeneko erreportaiak irakur daiteke. *Gaztetxulo*-ko kazetariak, *Loft Story*, *Gran Hermano* edo *Operación Triunfo* saio arrakastatsuak oinarritzat hartuta, egungo telebista ereduaz aztertzen dute.

Bestalde, antisorgailuei eta immigrazioari buruzko erreportaiak sakonak landu dituzte azken zenbakian. Lehen erreportaiaren kasuan, merkatuan egun topa daitezkeen antisorgailu motak izendatzeaz gain, zein abantaila eta desabantaila dituzten jakinarazten dute. Immigrazioaren kasuan, berriz, legez kanpoko etorkinekin eta legeztatuta daudenekin hitz egin dute.

Aste Santuari begira, berriz, oporrak ongi eta merke igarotzeko hainbat aholku ematen dizkiete irakurleei.

Azken zenbaki honetan, gainera, bada nabarmendu beharreko berrikuntza bat: *Gazteak eta bakera* sail berria martxan jarri dute. Sailaren helburua da egoera politikoaz eta izan ditzakeen irtenbideez Euskal Herriko gazte erakundeak iritziak eta proposamenak biltzea. Zenbaki honetan, esaterako, Segi erakundeko eledun Amaia Rekarterekin aritu dira solasean.

Ibarra eta Pello Goikoetxea dira parte hartuko duten bertsolariak. Etxarri-Aranatzen, berriz, Estitxu Arozenak, Oskar Estangak, Xabier Terrerosek eta Joseba Beltzak jardungo dute, 21:30ean, Leku Ona tabernan. Beste kanporaketa Aranon izango da, ordu berean, Herriko elkarteak. Bertan Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Ekintza Landa

eta Nerea Bruño arituko dira lehian.

Hitzaldiak

'Emakumeen egoera Ertamerikan' / Elgeta. Erdialdeko Amerikako gazteek euren lurraldean emakumeen egoera zein den azalduko dute gaur, Gaztetxean, 21:00etan.

'Txapela buruan ibili munduan' / Zauratz. Gaztelekuk antolatuta, *Txapela buruan ibili munduan* hitzaldi sortaren barruan, gaur Daniel Txoperenaren txanda izango da. Diapositiba emanaldiaren bidez, Thailandia eta inguruetan izandako egonaldia izango du mintzagai, 19:30ean, Gaztelekuko ikuskizun aretoan.

Bestelakoak

Poesia errezitaldia / Lekerio. Kirmen Uribe idazleak *Bitartean heldu eskutik* liburuaren aurkezpena egingo du errezitaldi moduan, musikari eta margolariez lagunduta. Saioa larunbatean izango da, 19:30ean, jubilatuen etxean.

Bideo emanaldia / Elgeta. Emakumeen eguna ospatzeko, bideo emanaldia izango da larunbatean, Gaztetxean. Emanaldia arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

Bideo emanaldia eta eztabaida / Donostia. Amara Zaharreko Haritza elkarteak antolatu duen Irlandako astearen barruan, Bloody Sundayren inguruko bideo emanaldia eta eztabaida egingo dute asteartean, Haritza Elkartean. Ekitaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

Planetario ibiltaria / Bera. Kultur Batzordeak antolatuta, izarren mundura bisita gidatuak egingo dituzte, La Caixako Planetarioan, asteartetik ostiralera, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Ikastaroak

Herri dantzak / Errenteria. Ereintza Dantza Taldeak herri dantzen ikastaroa antolatu du. Bertan muxikak, fandangoa eta arin-arina, balsak, pasodobleak eta abar erakutsiko dira. Izen emateko edo informazioa eskatzeko telefono honetara deitu daiteke: 943-52.65.53.

Gazteentzako ikastaroak / Galdakao. Barandiaran AEK euskaltegiak,

IPUIN EROTIKOEN LEHIAKETA, BASAURIN

ipuin erotikoen 7. lehiaketa



Gazte eskolak izeneko jardunaldien barruan, gazteentzako lau lantegi antolatu ditu, udalaren eta Urtxintza eskolaren laguntzarekin. Autoestimari buruzko ikastaroa asteartean hasi zen, eta gaur eta datorren asteartean izango dira hurrengo eskolak. Sexualitateari buruzkoa martxoaren 14, 19 eta 21ean egingo da. Drogamenpekotasunari dagokiona apirilaren 9, 11 eta 16an egingo dute. Eta, azkenik, *euskal jolasak* izeneko lantegia apirilaren 18, 23 eta 25ean emango dute. Ikastaro guztiak arratsaldeko 19:30etik 21:30era izango dira. Matrikulak 10 euro balio du, eta izena emateko euskaltegira deitu behar da: 944564119 edo *barandiaran@eeknet.net*.

Hainbat ikastaro / Azpeitia. Zapo Txoko gaztegunek Internet, sukaldaritza eta dantza garaikideari buruzko ikastaroak antolatu ditu 13 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Interneteko ikastaroa Aitor Priyak eskainiko du, ostiraletan, 18:00etan, eta 3 euro kostako da. Sukaldaritza irakasleak Zapo Txokoko hezitzaileak izango dira. Ikastaro hori ostegunetan izango da, 19:00etan, eta 6 euro balio du. Azkenik, dantza garaikideari buruzkoa larunbatetan emango dute, 10:00etatik 13:00etara, eta 18 euro balio du. Adeshoras taldea izango da ikastaro horretarako gidaria. Informazio gehiago,

nagore etxeberrria

Basauriko Euskarabila elkarteak ipuin erotikoen lehiaketa antolatu du zazpigarren urtez jarraian. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da 16 urte edo gehiago izatea. Lehiaketara aurkeztuko diren ipuin guztiek erotikoak izan beharko dute; argitaratu gabeak eta euskaraz idatziak. Lanen luzerak gutxienez bi orrikoa izan beharko du, eta gehienez, 10 orrikoa. DIN A-4 orrietan aurkeztu beharko dira, makinaz tarte bikoitzarekin idatziak.

Lehiaketara aurkeztuko diren ipuinetan ez da egilearen daturik idatziko, leloa bat baizik. Egilearen datuak —izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren leloa— gutun itxi batean sartuko dira, eta gutun-azalean ipuinak duen leloa bera idatziko da. Lehiakideak ipuina e-mailez bidaltzea erabakitzen badu, lana *ipuina* izeneko fitxategi batean bidaliko du, eta egilearen datuak, berriz, egilea izeneko beste fitxategi batean.

Unai Elorriagak, Miren Agur Meabek eta Pako Aristik osatzen dute lehiaketako epaimahaia. 365 eurokoa izango lehen saria, eta bigarrena, 245 eurokoa. Basauriko ipuin onenarentzat, berriz, 185 euro izango dira.

Sarituak izaten diren lan guztiak Euskarabila elkartearen esku geratuko dira, eta osorik edo zatika argitaratzeko eskubidea izango du (betiere egilea nor den zehaztuko da). Azken sei urteetako lan sarituak, esaterako, Txalaparta argitaletxearen Bero Hezeak izeneko liburuan argitaratuak daude.

Lan guztiak apirilaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira. Lan originala, hiru kopia eta egilearen datuak dituen gutun-azala beste gutun-azal handiago batean sartu eta honako helbide honetara bidali behar da: Euskarabila ipuin erotikoen 7. Lehiaketa, Euskarabila Elkartea, 146 posta kutxa, 48970 Basauri edo e-mailera.

943157161 telefonoan, eta izen ematea Gazte Builegoan.

Deialdiak

Bilera / Elgoibar. Larunbatean 17:00etan bilera egingo da Elgoibarko gaztetxean, datorren mar-

txoaren 22ean, Andoainean, Gipuzkoako Gazte Asanbladek egingo duten bilkurari buruz eztabaidatzeko. Bileran parte hartzeaz gain bazkaltzen geratu nahi duenak telefonoz deitu beharko du aurretik: 943-74.35.72.